# I. Atala / Sección I

# Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
# Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

## Foru Aldundia / Diputación Foral

### Ahaldun Nagusia

**Ahaldun Nagusiaren 93/2015 FORU DEKRETUA, uztailaren 2koa, foru diputatuen kargu-uztea xedatzen duena.**

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 27.1.8 eta 37.1 artikuluetan ezarritakoa dela bide, honako hau

XEDATZEN DUT:

*Lehenengoa:* Honako foru diputatu hauek kargua uztea:

1. Unai Rementeria Maiz jaunak, Lehendakaritzako foru diputatu kargua eta foru diputatu idazkari kargua.
2. Imanol Pradales Gil jaunak, Ekonomia Sustatzeko foru diputatu kargua.
3. José María Iruarrizaga Artaraz jaunak, Ogasun eta Finantzen foru diputatu kargua.
4. Itziar Garamendi Landa andreak, Herri Lan eta Garraioen foru diputatu kargua.
5. Iosu Madariaga Garamendi jaunak, Ingurumeneko foru diputatu kargua.
6. Miren Josune Ariztondo Akarregi andreak, Kulturako foru diputatu kargua.
7. Pilar Ardanza Uribarren andreak, Gizarte Ekintzako foru diputatu kargua.
8. Irene Pardo Portillo andreak, Nekazaritzako foru diputatu kargua.

*Bigarrena:* Kargua uzten duten foru diputatuei eskerrak ematea Bizkaiaren alde eman dituzten zerbitzuengatik eta egin duten lanagatik.

*Hirugarrena:* Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2015eko uztailaren 2an.

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-1112)

•

**Ahaldun Nagusiaren 94/2015 FORU DEKRETUA, 2015eko uztailaren 2koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren Sailak zein haien jardun-eremu eta eginkizunak ezartzen dituena.**

Ahaldun Nagusiari dagokio, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauko 37. artikuluaren arabera, foru diputatuak izendatzea; beraz, Ahaldun Nagusiak zehaztu egin ditzake Foru Aldundiaren egitura orokorra eta haren jardun-eremuak.

Nolanahi ere, Foru Aldundiak, gero, bestela erabaki dezake, sailetako egitura organikoak zehazterakoan, foru arau bereko 17.1.14 artikuluan ematen zaizkion eskumenak erabiliz.

### Diputado General

**DECRETO FORAL del Diputado General 93/2015, de 2 de julio, por el que se dispone el cese de los diputados y diputadas forales.**

En virtud de lo dispuesto en los artículos 27.1.8 y 37.1 de la Norma Foral 3/87, de 13 de Febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia,

DISPONGO:

*Primero:* El cese de los diputados y diputadas Forales que a continuación se relacionan:

1. Don Unai Rementeria Maiz, como diputado foral del Departamento de Presidencia y diputado foral secretario.
2. Don Imanol Pradales Gil, como diputado foral del Departamento de Promoción Económica.
3. Don José María Iruarrizaga Artaraz, como diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas.
4. Doña Itziar Garamendi Landa, como diputada foral del Departamento de Obras Públicas y Transportes.
5. Don Iosu Madariaga Garamendi, como diputado foral del Departamento de Medio Ambiente.
6. Doña Miren Josune Ariztondo Akarregi, como diputada foral del Departamento de Cultura.
7. Doña Pilar Ardanza Uribarren, como diputada foral del Departamento de Acción Social.
8. Doña Irene Pardo Portillo, como diputada foral del Departamento de Agricultura.

*Segundo:* Agradecer a los diputados y diputadas Forales cesantes los servicios prestados y la labor realizada a favor de Bizkaia.

*Tercero:* El presente Decreto Foral entrará en vigor el día de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Bilbao, a 2 de julio de 2015.

El Diputado General,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-1112)

•

**DECRETO FORAL del Diputado General 94/2015, de 2 de julio de 2015, por el que se establecen los departamentos de la Diputación Foral De Bizkaia y sus areas de actuación y funciones.**

El Diputado General, a quien corresponde, en virtud de lo dispuesto en el artículo 37 de la Norma Foral la Norma Foral 3/87, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, la designación de los Diputados Forales, puede determinar la estructura general de la Diputación Foral y de sus áreas de actuación.

Todo ello, sin perjuicio de lo que con posterioridad disponga la Diputación Foral con la aprobación de las estructuras orgánicas departamentales en ejercicio de las atribuciones que le otorga el artículo 17.1.º 14 de la misma Norma Foral.

cve: BAO-BOB-2015a126

Foru dekretu honen xedea da Foru Aldundiak egun duen egiturari funtsean eustea. Dena dela, jarraian zehaztuko diren aldaketak egingo dira, aldaketa horiek baitira egungo egoera sozial eta ekonomikoa ikusita egokientzat jotzen direnak.

Horregatik guztiagatik, honako hau

XEDATZEN DUT:

**Lehenengo artikulua**

Bizkaiko Foru Aldundiak sail eta zuzendaritza nagusi hauek izango ditu:

1. *Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saila*

a. Administrazioaren, Zerbitzuen eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia.

b. Udal Harremanetarako eta Larrialdietarako Zuzendaritza Nagusia.

Halaber, sailaren barruan, Modernizazio, Gobernamendu On eta Gardentasunerako Kabinetea sortzen da, Koordinazioko zuzendari nagusi batekin. Pertsona horrek, zuzendaritza nagusiekin batera, foru sailen plangintza gidatuko duten ildo estrategiko nagusiak eta lehentasunezko jardun-eremuak, gobernu-jardun bateratua mantentzeko plangintza, gobernantza, gobernamendu on eta gardentasunaren arloetan. Horrez gainera, zuzendari nagusi hori Modernizazio, Gobernamendu On eta Gardentasunerako Kabineteko burua eta titularra izango da, eta kabineteak zuzendaritza nagusi hauek izango ditu:

a. Administrazioaren Modernizaziorako Zuzendaritza Nagusia.

b. Gobernamendu Onerako eta Gardentasunareko Zuzendaritza Nagusia.

Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailari atxikiko zaizkio Lantik SA eta Zugastel SA merkataritzeko foru sozietateak eta Biscaytik Fundazioa.

2. *Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila*

a. Enpresak Sustatzeko eta Ekonomia Garatzeko Zuzendaritza Nagusia.

b. Kanpo Sustapenerako eta Turismorako Zuzendaritza Nagusia.

c. Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusia.

Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailari atxikiko zaizkio Azpiegiturak, S.A., BEAZ, S.A., Interbiak, S.A., Seed Capital Bizkaia, S.A. eta Seed Capital Bizkaia Mikro, S.A., merkataritzako foru sozietateak.

3. *Ogasun eta Finantza Saila*

a. Ogasuneko Zuzendaritza Nagusia.

b. Katastroaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusia.

c. Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusia.

d. FAEAren Zuzendaritza Nagusia.

Ogasun eta Finantza Sailari atxikiko zaio LAE foru enpresa-erakunde publikoa (Estatuko Loteria eta Apustuen Bizkaiko Erakundea).

4. *Euskara eta Kultura Saila*

a. Kultura eta Kirol Zuzendaritza Nagusia.

b. Euskara Zuzendaritza Nagusia.

Euskera eta Kultura Sailari atxikiko zaizkio Euskalduna Jauregia SA merkataritzako foru sozietatea, BizkaiKOA foru enpresa-erakunde publikoa, BIzkaia – Bizkaialde Fundazioa eta Azkue Fundazioa.

5. *iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila*

a. Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia.

b. Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia.

Iraunkortasun eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari atxikiko zaizkio Basalan, S.A. eta Garbiker, S.A. merkataritzako foru sozietateak.

El objeto del presente Decreto Foral es mantener en lo fundamental la actual estructura de la Diputación Foral con las modificaciones que se establecen a continuación y que son las que se juzgan las más oportunas en las actuales circunstancias sociales y económicas.

Por todo ello,

DISPONGO:

**Artículo primero**

La Diputación Foral de Bizkaia se organiza en los siguientes Departamentos y Direcciones Generales:

1. *Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales*

a. Dirección General de Administración, Servicios y Función Pública.

b. Dirección General de Relaciones Municipales y Emergencias.

Asimismo, dentro del departamento, se crea un Gabinete de Modernización, Buen Gobierno y Transparencia, con un/a Director/a General de Coordinación que establecerá las directrices estratégicas y áreas prioritarias de actuación que guíen la planificación de los Departamentos Forales, en colaboración con las Direcciones Generales, al objeto de mantener una unidad de acción de gobierno común en el ámbito de la Planificación, Gobernanza, Buen Gobierno y Transparencia y a su vez ejercerá la jefatura y titularidad del Gabinete de Modernización, Buen Gobierno y Transparencia que estará compuesto por las siguientes Direcciones Generales:

a. Dirección General de Modernización de la Administración.

b. Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia.

Se adscriben al Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales las sociedades mercantiles forales Lantik, S.A. y Zugaztel, S.A. y la fundación Biscaytik Fundazioa.

2. *Departamento de Desarrollo Económico y Territorial*

a. Dirección General de Promoción Empresarial y Desarrollo Económico.

b. Dirección General de Promoción Exterior y Turismo.

c. Dirección General de Infraestructuras y Desarrollo Territorial.

Se adscriben al Departamento de Desarrollo Económico y Territorial las sociedades mercantiles forales Azpiegiturak, S.A., BEAZ, S.A., Interbiak, S.A., Seed Capital Bizkaia, S.A. y Seed Capital Bizkaia Mikro S.A.

3. *Departamento de Hacienda y Finanzas*

a. Dirección General de Hacienda.

b. Dirección General de Catastro y Servicios.

c. Dirección General de Finanzas, Presupuestos y Patrimonio.

d. Dirección General de TEAF.

Se adscribe al Departamento de Hacienda y Finanzas la entidad pública empresarial foral LAE (Delegación en Bizkaia de Loterías y Apuestas del Estado).

4. *Departamento de Euskera y Cultura*

a. Dirección General de Cultura y Deportes.

b. Dirección General de Euskera.

Se adscriben al Departamento de Euskera y Cultura la sociedad mercantil foral Euskalduna Jauregia, S.A. y la entidad pública empresarial foral BizkaiKOA y las fundaciones BIzkaia – Bizkaialde Fundazioa, y Azkue Fundazioa.

5. *Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural*

a. Dirección General de Agricultura.

b. Dirección General de Medio Ambiente.

Se adscriben al Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural las sociedades mercantiles forales Basalan, S.A. y Garbiker, S.A.

cve: BAO-BOB-2015a126

6. *Gizarte Ekintza Saila*

a. Administraziorako eta Gizarte Sustapenerako Zuzendaritza Nagusia.

b. Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia.

Gizarte Ekintza Sailari atxikiko zaizkio Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea erakunde autonomoa (IFAS-GUFE) eta Bizkaiko Tutoretza Erakundea erakunde publikoa.

7. *Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Saila*

a. Enplegua Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia

b. Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia.

c. Gizarteratzea Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia.

8. *Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Saila*

a. Garraioen Zuzendaritza Nagusia.

b. Hirigintzako Zuzendaritza Nagusia.

Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Sailari atxikiko zaio Aparkabisa, S.A., merkataritzako foru sozietatea.

### Bigarren artikulua

Ahaldun Nagusiaren Kabinetea sortzen da, zeina zuzenean Ahaldun Nagusiaren menpe egongo baita. Haren eginkizunak erregelamenduz garatuko dira; Ahaldun Nagusiaren Kabineteko burua titularra izango da, eta jardun-eremu nagusi hauek koordinatuko ditu:

a) Komunikaziorako Zuzendaritza Nagusia.

b) Kanpo Ekintzako Zuzendaritza Nagusia.

c) Bizkaiko Behatokiaren Zuzendaritza Nagusia.

### Hirugarren artikulua

Foru dekretu hau Foru Aldundiak berretsi behar du.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Sailen eta Ahaldun Nagusiaren Kabinetearen egitura organikoa zehazteko foru dekretuak onetsi artean, egungo zuzendaritza, zuzendariordetzak, zerbitzu eta atalen eginkizunak mantenduko dira, bien bitartean egiten diren izendapenak gorabehera.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik geratuko dira foru dekretu honen aurka dauden xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2015eko uztailaren 2an.

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-1167)

6. *Departamento de Acción Social*

a. Dirección General de Administración y Promoción Social.

b. Dirección General de Promoción de la Autonomía Personal.

Se adscriben al Departamento de Acción Social el Organismo Autónomo Instituto Foral de Asistencia Social IFAS-GUFE y la entidad pública empresarial foral Instituto Tutelar de Bizkaia.

7. *Departamento de Empleo, Inserción Social e Igualdad*

a. Dirección General de Empleo Inserción Social e Igualdad.

b. Dirección General de Igualdad.

c. Dirección General de Inserción Social.

8. *Departamento de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio*

a. Dirección General de Transportes.

b. Dirección General de Urbanismo

Se adscribe al Departamento de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio la sociedad mercantil foral Aparkabisa, S.A.

### Artículo segundo

Se crea, bajo la dependencia directa del Diputado General, el Gabinete del Diputado General, cuyas funciones se desarrollarán reglamentariamente, y con el jefe/a de Gabinete del Diputado General como titular del mismo, coordinando las siguientes áreas de actuación principales:

a) Dirección General de Comunicación.

b) Dirección General de Acción Exterior.

c) Dirección General del Observatorio de Bizkaia.

### Artículo tercero

El presente Decreto Foral será sometido a convalidación de la Diputación Foral.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Hasta la aprobación de los Decretos Forales de Estructura Orgánica de los departamentos y del Gabinete del Diputado General, se mantendrán, sin perjuicio de los nombramientos que pudieran realizarse, las funciones de las actuales Direcciones, Subdirecciones, Servicios y Secciones.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones se opongan al presente Decreto Foral.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Bilbao, a 2 de julio de 2015.

El Diputado General,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-1167)

•

**Ahaldun Nagusiaren 95/2015 FORU DEKRETUA, 2015eko uztailaren 2koa, foru diputatuen izendapena xedatzen duena.**

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 27.1.8 eta 37. artikuluetan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT:

### Lehenengo artikulua

Honako pertsona hauek foru diputatu izendatzea 2015eko uztailaren 3ko ondorioekin:

1. Ibone Bengoetxea Otaolea andrea, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko foru diputatu.

**DECRETO FORAL del Diputado General 95/2015, de 2 de julio de 2015, por el que se dispone el nombramiento de diputadas y diputados forales.**

En uso de las atribuciones otorgadas por los artículos 27.1.8 y 37.1 de la Norma Foral 3/87, de 13 de Febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico,

DISPONGO:

### Artículo Primero

Nombrar diputadas y diputados forales, con efectos del día 3 de julio de 2015, a:

1. Doña Ibone Bengoetxea Otaolea, diputada foral del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

cve: BAO-BOB-2015a126

2. Imanol Pradales Gil jauna, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko foru diputatu

3. José María Iruarrizaga Artaraz jauna, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatu.

4. Lorea Bilbao Ibarra andrea, Euskara eta Kultura Saileko foru diputatu.

5. Elena Unzueta Torre andrea, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko foru diputatu.

6. Isabel Sánchez Robles andrea, Gizarte Ekintza Saileko foru diputatu.

7. Teresa Laespada MartÍnez andrea, Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatu.

8. Vicente Reyes Martín jauna, Garraioak, Mugikortasuna et Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Saileko foru diputatu.

### Bigarren artikulua

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2015eko uztailaren 2an.

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-1168)

•

**Ahaldun Nagusiaren 96/2015 FORU DEKRETUA, 2015eko uztailaren 2koa, foru diputatu idazkaria izendatzen duena.**

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 12.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, honako hau

XEDATZEN DUT:

### Lehenengoa

Bizkaiko Foru Aldundiko idazkari izendatzea Ibone Bengoetxea Otaolea Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko foru diputatua.

### Bigarrena

Idazkari gisa, foru diputatu idazkariak honako eginkizun hauek bete behar ditu:

a) Ahaldun Nagusiak emandako jarraibideen arabera, Idazkaritza Orokorreko Unitateak Gobernu Kontseiluaren bileretarako aurkeztutako eguneko aztergaien zerrenda-proposamenari onespena ematea.

b) Gobernu Kontseiluaren erabakien fede publikoa ematea eta, behar denean, halakoei buruzko ziurtagiria egitea.

c) Indarrean dagoen legeriak eta Foru Aldundiak ematen dizkioten gainerako guztiak.

### Hirugarrena

Idazkariari dagozkion eskumenak erabiltzerakoan, foru diputatu idazkariak Idazkaritza Orokorreko Unitatearen laguntza izango du. Unitate horrek sailaren erregelamendu organikoan ematen zaizkion eginkizunak izango ditu.

### Laugarrena

Foru diputatu idazkariaren absentzia, gaixotasuna, bateraezintasuna edo aldi baterako eragozpena gertatzen bada, Ahaldun Nagusiak aldez aurretik izendatuta, haren sailari dagozkion gaiak bideratzeko ardura duen foru diputatua arduratuko da, aldi baterako, idazkariari dagozkion eginkizunak betetzeaz ere.

### Bosgarrena

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2015eko uztailaren 2an.

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-1169)

2. Don Imanol Pradales Gil, diputado foral del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial.

3. Don José María Iruarrizaga Artaraz, diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas.

4. Doña Lorea Bilbao Ibarra, diputada foral del Departamento de Euskera y Cultura.

5. Doña Elena Unzueta Torre, diputada foral del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural.

6. Doña Isabel Sánchez Robles, diputada foral del Departamento de Acción Social.

7. Doña Teresa Laespada Martínez, diputada foral del Departamento de Empleo, Inserción Social e Igualdad.

8. Don Vicente Reyes Martín, diputado foral del Departamento de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio.

### Artículo Segundo

El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Bilbao, a 2 de julio de 2015.

El Diputado General,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-1168)

•

**DECRETO FORAL del Diputado General 96/2015, de 2 de julio de 2015, por el que se designa diputada foral secretario/a.**

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 12.3 de la Norma Foral 3/87, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico,

DISPONGO:

### Primero

Designar Secretario/a de la Diputación Foral de Bizkaia a la diputada foral del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Doña Ibone Bengoetxea Otaolea.

### Segundo

En calidad de Secretario/a, a la diputada foral secretario/a le competen las siguientes funciones:

a) Dar conformidad a la propuesta elevada por la Unidad de Secretaria General del Orden del Día de las sesiones del Consejo de Gobierno, de acuerdo con las instrucciones emanadas del Diputado General.

b) Dar fé pública de los acuerdos del Consejo de Gobierno, librando, cuando proceda, certificación de los mismos.

c) Las demás que le confiera la legislación vigente y la Diputación Foral.

### Tercero

En el ejercicio de las atribuciones de Secretario/a, la diputada foral Secretario/a se asistirá de una Unidad de Secretaria General que asumirá las funciones que se le encomienden en el Reglamento Orgánico departamental.

### Cuarto

En los supuestos de ausencia, enfermedad, incompatibilidad o impedimento temporal de la diputada foral secretario/a, se encargará temporalmente de sus funciones como Secretario/a el/la diputado/a foral que, previa designación del Diputado General, se encargue del despacho de los asuntos correspondientes a su Departamento.

### Quinto

El presente Decreto Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Bilbao, a 2 de julio de 2015.

El Diputado General,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-1169)

cve: BAO-BOB-2015a126